

Pierre Lhande eta euskal literaturaren historia

Jean Casenave

► **To cite this version:**

Jean Casenave. Pierre Lhande eta euskal literaturaren historia. *Iker - Euskaltzaindiaren aldizkaria*, 2008, Jean Haritschelhar-i omenaldia (21), pp.139-160. <artxibo-00247429>

HAL Id: artxibo-00247429

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00247429>

Submitted on 8 Feb 2008

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

PIERRE LHANDE ETA EUSKAL LITERATURAREN HISTORIA

Eguno egunean doi bat ahantzia baldin bada ere, gogoratu behar da Pierre Lhande, eragin handiko gizona izan dela, XX. mende hastapenean. Orduko euskal kulturaren anitz sailetan ari izana da lanean eta hiztegi egile bezala egon baldin bada gure oroitzapenetan, gogorarazi behar da eleberri eta saiakera egile gisa bildu zuela bere famarik handiena. Ondoko lerroetan ez dugu haren obraren alderdi bat baizik aipatuko, euskal literaturen historian egin duen ekarpen garrantzitsu bezain aurrerakoia, hain zuzen. Bainan, azterketa hortan sartu baino lehen eta kritikariaren lana argitzeko, xehetasun biografiko premiatsu batzu emanen ditugu.

1. Pierre Lhande, itzal handiko gizona XX-garren mende hastapenean :

Idazlan honetan ez dut haren biografia eginen, irakurleak bestalde aurkitzen ahalko baititu jakin nahi dituen xehetasunak¹. Gaiari buruzko ohar beharrenek eginen ditut, doi doia.

1.1. Xehetasun biografikoak :

Pierre Lhande Baionan sortu zen 1877an eta Atharratzen itzali zen 1957an, luzaz eri handia egonik. 1900. urtean Jesusen Lagundian sartu zen eta 1910ean apaiztu zen. Jesusen Lagundiko kide izanez, formakuntza sakona ukan zuen anitz sailetan eta, batez ere, Letretan (Literatura, Filosofia, Historia). Autore klasikoak baita ere XIX. mendekoak oso ongi ezagutzen zituen, eta bera literatur zalea eta idazlea izanki, garaikideen emaitzak ere guziz hurbiletik jarraikitzen zituen, frantsesak gehien bat, bainan, gazteleraz idazten zituztenak ere bai. Apaiz bezala biziki ezaguna zen, bereziki Pariseko eskualdean jende behartsuen alde egin zuen lanari esker. Bestalde, jakin behar da ere, irratia bidez zabaldu ziren erludioari buruzko lehen emankizunetan parte hartu zuela *Radio Paris* eta *Radio Luxembourg* irratietan (1927-1933), predikari gisa. Bainan, goi maileko intelektual hori, arrakasta handiko idazlea zen ere XX. mendeko lehen laurdenean. Orduko Euskaldunen artean, gutti izan dira hura bezain idazle emankorrek izan direnak, berrogei liburu pasa argitaratu baitu bere bizian, gehienak erdaraz.

¹ Patri Urkizu, *Pierre Lhande Heguy (1877-1957)*, **Bidegileak**, Ed. Eusko Jaurlaritza, 1998.

1910etik, 1925arte, egonaldi luzeak egin ditu Euskal Herrian eta, munduko lehen gerla aintzin baita ere ondotik, zenbait urtez, Hernanin eta Hondarribian bizi izan da, Jesuiten ikastetxeetan klaseak ematen. Euskara landu zuen urte haietan eta funtsezko idazlanak ondu zituen. Besteak beste, aipa dezagun oraindik erabiltzen den “Lhande” hiztegia, nahiz ez zuen harek lana bururaraino ereman ahal izan². *Euskaltzaindia*-n ere parte hartu zuen abantxu hastapenetik (1920), Zubereraren ordezkari gisa eta *Euskera*, Akademiaren agerkaria kudeatu zuen bi urtez. Bainan, lehenago aipatu bezala, bere obraren parte handiena frantsesez egin zuen.

1.2. Euskal zikloa, P. Lhande-n obran :

Liburu multxo nasai horretan, zazpi badira Euskal Herriari buruz idatziak izan direnak. Lehenik, bi saiakera argitaratu zituen Pierre Lhandek bere sorterriari buruz :

- *Autour d'un foyer basque*, (1908).

- *L'Emigration basque*, (1910).

Bi saio horietan, antropologia, etnologia eta historiaren metodologiak erabili zituen gaiari heltzeko.

Zenbait urte berantago, hirugarren saioa idatzi zuen, lehen saiakeraren (1908) parte handiena erabiliz, heren batez osatzen zuela hiru kapitulu berriekin.

- *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925).

Bestalde, eleberrigintzaren bidea baliatuz, « euskal ziklo » bat idatzi zuen :

- *Mirentchu* (1914), eleberri kostunbrista, frantsesez.

- *Yolanda* (1921) : eleberri historikoa, frantsesez eta euskaraz.

- *Bibilis* (1926), eleberri « apokaliptikoa », frantsesez.

- *Le Moulin d'Hernani* (1936), ipuin eta kondeketa bilduma, frantsesez.

Kritika literarioan ari izana da eta sail horretan ere, guziz oroitzekoa da utzi duen lan ederra. Frantses literaturaren aktualitatea jarraitzen zuen, baita ere gaztelerazkoa ; hain zuzen, hortarako ekarrarazi zuten Euskal Herritik eta Toulouse hiritik Parisera, *Etudes* Jesuiten agerkari famatuan parte hartzeko, literatur kritikari gisa. Bainan, euskal literatura landu zuen ere ; urte gutiz (1919-1925), garrantzi handiko lana egin zuen, literaturazale eta kritikari zorrotza baitzen, eta denbora berean, formakuntza oneko aditua, frantses “eskola historikoa” ongi ezagutzen zuena.

² Piarres Lafitte-k eta Ph. Aranart-ek bukatu zuten Lhande-k « e » Letran utzi zuen lana.

2. Kritikariaren emaitza :

2.1. Idazlan kritiko nagusiak :

Euskal literaturaren kritika mailan egin duen lana izanen da aipagai ondoko lerroetan. Nahiz ez ditugun idazlan guzti-guztiak bildu, Lhande-n ikuspegia eta erabiltzen zuen metodologia bilatu ditugu argitaratu dituen idazlan kritiko nagusietan :

RIEV :

1914 : . Le théâtre de plein air : Maïtena.

1919 : - Bulletin de littérature basque :

- . P. Baroja : *Momentum catastrophicum*
- . Aranaz Castellanos : « *Begui eder* » (Nuestra Señora de los ojos hermosos).
Cuadros vascos.
- . L. Eleizalde : *Landibar*.
- . R.M. Azkue : *Ardi galdua*.
- . A. Campion : *Euskariana*.

- Bestalde :

- . Replica al señor Baroja.

Ohar bat :

Urte hartan, aitzineko alean Pio Baroja-ren “Momentum catastrophicum” liburua aipatu zuen Lhande-k. Idazlan hortan, garbiki idazten zuen Baroja-k *L'Emigration basque* (1910) saiakeratik testu zati bat hartu ziola *Las inquietudes de Shanti Andia* eleberrian erabiltzeko. Ale berean, Pio Barojak egindako “Contestacion a Mr. Pierre Lhande sobre un supuesto plagio” artikuluari erantzun zion Lhande-k, molde bizi-bizian.

1920 : - Bulletin de littérature basque : Domingo de Agirre.

- Bibliografia :

- . R. Nadaud : *Esquisses basques*. (Aipamen kritikoa)
- . A. De La Sota : *Divagaciones de un transeunte*.

Gure Herria : 1923 : Le barde Etchahoun.

Itzaldiak : (*Euskal-Esnalea* agerkariaren gehigarria)

1923 : Agirre, irakurgaikiña.

Aintzin solasa : Auguste Fourcade, *La nuit étoilée*, 1922.

Le Pays basque à vol d'oiseau (1925) :

. La littérature et la langue (Chapitre III).

2.2. Krikitariaren ikuspegia :

Gaineko zerrendan aipatu lanen aurkezteko, ondoko lau sailak erabiliko ditut.

- Liburu berrien kronika.
- Lan monografikoak : D. Agirre ; le barde Etchahoun.
- Bestelakoak : aitzin solasak
- Euskal literaturari buruzko ikuspegi orokorra : *Le Pays basque à vol d'oiseau*.

- Liburu berrien kronika :

Ez du luzaz eginen 1919an RIEV abiatzen duen kronika, 1921etik goiti, Hernanitik Toulouse hirira bidalia baita. Lehen urtean, bi aipamen andana ematen ditu. Lehenean, bi idazlan aurkezten ditu : Pio Baroja-ren *Momentum catastrophicum* eta Aranaz-Castellanos-en *Begui eder*.

1919an, Baroja idazle guziz ezaguna da. Berrargitaratua duen liburutto baten aurkezpena egiten du Lhande-k. Eta lehen lerroetan berean, ez duela batere gustukoa garbi erakusten du. Barojak erabiltzen duen doinu umoretsu eta ironiko ber berean, Lhande-k dio Berako idazlearen errana alderantziz ulertu behar dela. Baroja-k « euskal nazionalismoa »ri erasotzen dio liburuan, orduan kontrakoa irakurri behar da : « *Il se déclare l'ennemi absolu du séparatisme : « Esto lo que no sea universal, dit-il, no ha razon de ser ». Cependant, il accepte l'idée de former une petite république indépendante dans sa vallée de la Bidassoa, "un pequeño país, limpio, sin moscas, sin frailes y sin carabineros* ».

Lhande-k Beratarraren obra eta nortasuna horrela erakusten ditu : « *Régionaliste et Basque, il l'est en dépit de ses proclamations, bien plus sincèrement que maint auteur d'idylles locales ou maint partisan de l'autonomie basque. Seulement il a pour sa petite patrie l'amour inquiet et douloureux des névrosés.* ».

Baroja-ren baitan ikusten dituen kontradizioak azpimarratu ondoan, segitzen du aurrera beste itzal bat erakutsi beharrez, Berako idazlearen etika falta eta diruaren alderako joera, hain zuzen :

« *Cet écrivain qui se targue de froisser les sentiments de la foule et, qui vise en apparence à l'impopularité, sait fort bien que le programme nationaliste excite de grandes colères et s'attire des haines féroces dans tout le reste de la Péninsule. On proscrit le parti, on l'isole, on le désarme par le vide. Un écrivain « nacionalista » est parfaitement sûr de ne pas vendre ses livres, eût-il le talent et la renommée de Pio Baroja. (...) Alors que voulez-vous, pris entre ses penchants nationalistes et ... ses droits d'auteur, l'écrivain préfère sacrifier les premiers aux seconds !* ».

Denbora joan da anartean, eta Berako idazlearen omena gora dago, Lhande-na aldiz, mendretu da eta, euskal kulturaren ez bada, frantsesezko idazle bezala guziz aiantzia izan da. Oraiko ikuspuntutik badirudi kopeta bazuela Lhande-k Baroja handia molde horretan erabiltzeko, bainan, oroitu behar da Lhandek zer fama zuen orduan. Ez zeukan bere burua, Barojak berea baino guttiago, urrundik ere. Eta bi ohar gehitu behar dira gai horrekin bukatu baino lehen. Gerorago ikusiko dugun bezala, erran behar da Lhande kritikari zorrotza zela eta ez zuela liburu edo gai bati buruz pentsatzen zuena gordetzen batere, egilea adiskide mina izanik ere, Azkue-ren kasua lekuko.

Bainan, Baroja eta Lhande-n artean, bazen zerbait gehiago. Bien arteko harremanak guztiz polemikoak izan ziren « plagio » arazo batengatik. Aipatu dugun artikulua berean, Lhande-k ausiki bat botatu zion Beratarrari, baizik eta *Shanti Andia* eleberrian erabili eta itzuli zuela *L'Emigration basque* (1910) saiakeran berak idatzi zuen zati bat. Barojak ihardetsi zion doinu mindu batez, eleberrigileak ez dituela fikzio batean erabilitako iturriak agerian uzten. Eta gehitzen zuen desafio moduan, bi testuak (frantsesezko originala eta haren “itzulpen-egokipena”) parrez par eman zituzan ondoko RIEV-eko alean. Lhande-k orduan ez zuen dudatu eta, biak argitaratu zituzten sartze labur baten ondotik :

“El señor Baroja esta perfectamente en su derecho, al pedirme la publicacion integra de las dos paginas aludidas en mi nota. Me apresuro a darle gusto. Esta sencilla comparacion de textos es de por si bastante significativa para que me ahorre el trabajo de subrayar o comentarlos.” “Replica al señor Baroja”, RIEV, 1919.

1919ko lehen alean, Barojaz gain Aranaz-Castellanos-en *Begui eder* eleberria tirokatzen du molde ironiko berdinez. Liburuak, Euskaldunak ditu gai bezala hartzen bainan, haien gutiesteko, Lhande-k dionez, bai pertsonaien sinesgarritasun eskasagatik, baita ere kondaketaren ahuleziarengatik, eleberri txarra da Bilboko kazetari ohiaren lehen eleberri hori.

Urte bereko bigarren alean, Eleizalde-ren *Landibar* eleberria aipatzen du. Oro har, Lhandek uste du idazlan ona dela literatura mailan, Aranaz-Castellanos-ena baino aise hobe, omen. Bainan, *Landibar* horretan ere, alde onen artean akats bat aurkitzen du halarik ere :

“Certes, par la solidité de la trame, la richesse et l’exactitude de la documentation, la vigueur des reliefs dans les caractères et les figures, la finesse psychologique enfin, Landibar est à mille pieds au dessus de Begui-Eder, mais il est impossible au critique impartial de ne pas reconnaître dans l’œuvre du jeune et brillant professeur à l’Institut de Vitoria ce même souffle de sourde haine, ce même ton de sarcasme que nous avons signalés dans le livre de

l'ancien journaliste bilbaïno. Seulement, ici, les rôles sont renversés. L'objet de tant de traits tour à tour ironiques et mortels, c'est le gouvernement de Madrid, c'est la politique, c'est la religion, c'est l'esprit qui règne au-delà de l'Ebre. C'est l'Espagne moderne, « geolière » et « tyran » de l'antique Euzkadi. »

« Chronique de Littérature basque », *RIEV*, 1919.

Urte bereko artikulu berean, Arturo Campion-en *Euskariana* aurkezten du. Denetarik bildu du liburu hortan idazle nafartarrak eta Lhande-ek ez du espantu handirik bere oharretan. Badirudi, adiskide baten alde egindako aipamena dela benetako kritika baino, eta ohar batzu ez dira neurri txarrekoak...

« Je me suis souvent demandé en relisant la Bella Easo pourquoi Arturo Campion n'est pas aussi connu en France qu'un Unamuno ou qu'un Pio Baroja. Incontestablement il est égal au premier par l'érudition, supérieur au second par l'éclat du style, la puissance de l'idée, le relief ou la grâce de l'image. Baroja voit le noir du néant : Campion voit la vie. »

« Chronique de Littérature basque », *RIEV*, 1919.

Dudarik gabe, maila handiagoko kritika da Azkue-ri egiten diona. Lekeitioko idazleak *Ardi galdua* argitaratu du aitzineko urtean. Liburu hartan, Ameriketara joana den Euskaldun baten gorabeherak kontatzen ditu, herritarrekin trukatzeko gutunen bidez. Parada baliatuz, euskarazko eleberraren egoera eta poetika aztertzen ditu Lhandek :

« Assurément, il est impossible de juger une oeuvre comme Ardi galdua à la même mesure que celle des grands romans castillans ou français contemporains. Il faut tenir compte des obstacles qu'offrent une langue littéraire très imparfaite, un vocabulaire qui se plie difficilement aux complications psychologiques, la nécessité d'être clair et court devant un public peu habitué à la lecture courante. »

« Chronique de Littérature basque », *RIEV*, 1919.

Bera eleberrigile izanki, oso ongi badaki zein diren oztopoak arnas luzeko kondaketa irakurgarri eta erakargarri baten idazteko orduan. Horregatik, hizkuntza literarioaren malgutasun eskasa eta mail oneko irakurle goaren falta horiek behin eta berriro aipatuko ditu bere kritika lanetan. Halarik ere, oso garbi uzten du gerorako bidea apailatzen duela Azkuek horrelako lan dorpe batzuen bitartez :

« De tels ouvriers sont précieux à l'aube d'une renaissance.

Plus tard, les vulgarisateurs viendront. Profitant du labeur longuement amassé par leurs devanciers, ils écriront aisément des œuvres à la fois pures et faciles, ils manieront avec aisance l'instrument redoutable de la langue euskarienne. »

« Chronique de Littérature basque », *RIEV*, 1919.

- **Lan monografikoak** :

Aipamen luze eta sakon horiez gain, bi lan monografiko nagusi egin ditu, bi idazleri buruz : Etxahun-Barkoxe eta Txomin Agirre.

Agirre-ri buruzko lana bi hizkuntzetan agertu zen « Domingo Agirre » izeneko artikulu luzea frantsesez argitaratua izan zen *RIEV* aldizkarian 1920-an. Euskarazko testua, jatorrizkoa iduriz, « Itzaldiak » deitu *Euskal Esnalearen* gehigarrian publikatu zen, 1923-an, *Agirre, irakurgaikiña* tituluarekin. Ondarruko euskaltzaina hil eta, mintzaldiak antolatuak izan ziren Donostian, haren ohoretan. Horiek berak argitaratu zituzten *Euskal esnalearen* gehigarri hortan.

Bigarrena, 1923an agertu zen *Gure herria*-n eta frantsesez egina zen. « Le barde Etchahoun » deitu zuen Lhande-k eta, ordu hartan prestatzen zuen Etxahun Barkoxeren olerki bildumaren edizioan erabili nahi zuen, hitzaurre gisa. Bainan, denbora eskasez, baita ere ez zelakoan gehiago Euskal Herrian bizi, bilketa bukatu gabe utzi behar izan zuen³.

- **Aintzin solasaren funtzioa** :

Lhande-k idatzi dituen aitzinsolasetarik bat hautatu dugu erakusteko zer funtzio kritikoa betetzen zuen harentzat. 1922-an, Auguste Fourcade baionesak *La nuit étoilée* deitu eleberria argitaratzen du. Hitzaurrea, « Pierre Lhande de l'Académie de la langue basque » izenpetua da. Holakoetan erabiltzen diren ele onez gain, Lhande-k *Mirentchu* (1914) eleberrian obratu duen Loti-ren kritika berritzen du ; bainan, aldi honetan ez du fikzioaren bidea hartzen, eraso zuzena botatzen du :

« Encore un roman sur le pays basque ! » me disais-je avec mélancolie. « Encore une de ces œuvres où, parmi les descriptions des couchers de soleil derrière la Rhune ou Socoa, parmi des scènes de contrebande ou des parties de pelote, éclatera crûment cette méconnaissance profonde du caractère, de la mentalité, de l'âme de notre race, qui nous écoeure et nous révolte. Un pastiche plus ou moins bien troussé de Ramuntcho ; du pittoresque, du superficiel... »

- **Ikuspegi orokorra** :

Euskal literaturari buruz Lhande-k eman duen ikuspegi orokorrena, *Le Pays basque à vol d'oiseau* izeneko liburuan aurki daiteke. Liburua 1925ean argitaratu zuen Pariseko Beauchesne argitaletxean, hiztegia (*Dictionnaire Français-Basque*) jalgi zen etxe berean. Lhandek berak hitzaurrean dioen bezala, bi partez osatua da. Liburuaren bigarren partea,

³ Jean Larrasquet xiberutar apaizak amaitu zuen liburua, eta Euskal-zaleen Biltzarrak argitaratu zuen, 1946-an : *Le Poète Pierre Topet dit Etchahun (1782-1862) et ses œuvres.*

laugarren kapitulutik hara, *Autour d'un Foyer basque*, 1908-an publikatu zuen bere lehen idazlana berritz hartu zuen, aspaldian agortua zelakoan. Lehen hiru kapituluak aldiz, berriak ziren eta Toulouse-ko Unibertsitate publikoan eman zituen klaseetarik moldatu zituen. Horietan aurkitzen da euskal literaturari buruz Lhandek egin duen lan luze, sakon eta egituratuena.

Le Pays basque à vol d'oiseau (1925, Ed. Beauchesne)

Table :

Préface

- I. Le décor
 - II. Les origines
 - III. La littérature et la langue
 - IV. Le foyer basque
 - V. Le maître de maison
 - VI. La femme et l'enfant
 - VII. Les domestiques
 - VIII. Le travail
 - IX. La chasse et le jeu
 - X. La veillée
 - XI. L'idée religieuse
 - XII. La part à Dieu
- Conclusion

3. Pierre Lhande-ren metodologia literaturaren historia sailean :

Kritika mailan hiru lan nagusi utzi ditu P. Lhande-k eta banan-banan hartuko ditugu.

- Agirre-ren idazlanen kritika :

Hamabi orrialdetan, Agirre-ren obra aztertzen du Lhandek eta, adibide hortan oinarrituz, euskal eleberrigintzaren oinarriak eta norabideak aipatzen ditu. Aitzineko urtean, Azkue-ren *Ardi galdua* aurkeztu zuen eta gisa bereko lana egin zuen, eleberraren gabeziak eta alde onak azpimarratuz, baita ere generoen poetika landuz.

Oroit gaitezen akatsak ikusten zituela *Ardi galduan*, batez ere kondagintzaren aldetik (gutunen bitartez egituratzeak jarraipena kentzen ziola ekintzari) eta batez ere hizkuntza mailan (hizkuntzalari batena zela eleberrigilearena baino). Agirre-rentzat ez da horrelakorik, *Kresala* eta *Garoa*, bakoitza bere ingurumenean (portuan eta mendian), kausitze ederrak bezala ikusten ditu Lhande-k. Eta hiru ezaugarri nagusi ematen ditu arrakastaren argitzeko :

“Gai errexa, izkuntza jatorra, arlo goxo eta parrebidetsua“

Agirre, irakurgaikiña, Itzaldiak, 1923.

Lhande-n arabera, Agirre-k ez du hizkuntza bortxatzen egin ahala dotere bilakarazteko. Bere lehen eleberrian hala egin zuen, *Auñamendiko lorea* (1898), hain zuzen. Bainan, orduetik hara Agirre-k ulertu omen zuen “*berak bere begiez ikusitako gertaldi bat zuzentzea, lenagoko kondaira zarrak jostea baiño zurrago izango zala*”. Eta gertaldiekin batean hizkuntza ere hartu zuen portuko kaletik beretik edo menditik. Horrelako zerbait kondatzen zuen Piarres Lafitte-k *Mintzaira, aurpegia, gizon* (Ed. Jakin, 1972) artikuluan antologiaren hitzaurrean : J. Hiriart-Urruty, bere artikulua bidean utizirik, jausten omen zen karrikara eta merkatuko euskaldunen artean murgiltzen zen jende arrunten “ahozko hizkuntzaz” beharriak bete beharrez. “Euskara naturala“-ren “mito“ (?) berbera erabiliz, Lhandek kondatzen du :

“Belarria erne, begia zorrotz, bazebilen arrantzaileak batu oi diran tokietara. Gogoan lenik ta gero txarteltxoan jende txikiaren esan-erantzunak sartzen zituan, ta bere belarritik xuxen idaztortzara orri batzuetako gaiak lerratu zitayola esan dezakegu”.

Agirre, irakurgaikiña, Itzaldiak, 1923.

Garoa, Kresala baino gorago ezartzen du oraindik Lhandek, gehituz hura dela euskaraz sekula egin den eleberri hoberena, idazle gazteentzat eredugarri bezala gelditu beharra dena.

Halarik ere, ikuspegi baikor horretan ñabardura gisako zerbait ekarri behar da. Nahiz maisuki idazten duen, Agirre-k “*arlo goi ta meyak utzirik sail errex ta adigarriak*” erabiltzen ditu. Eta hori, alde batetik “*gure baserritarrak irakurtzen oitua ez tiralako*” dio Lhandek. Bainan, frantsesezko testuan, irizpide orokorragoetara lerratzen da, idazten duelarik :

“La vie fait la langue. Or comme la vie basque est essentiellement simple et rustique, la langue basque, à son tour, doit exprimer nécessairement surtout les concepts simples et rustiques. On ne peut, sans lui faire violence, lui demander encore de rendre des complications sentimentales ou intellectuelles qui n’existent pas dans la vie dont elle est la formule. Si on veut l’euskara plus subtil, il faut que l’euskaldun le devienne davantage ».

Domingo de Agirre, « Bulletin de littérature basque », *RIEV*, 1920

Hots, Azkuek kausitu ez zuena -goi mailako gogoetak pasa araztea euskara irakurgarri batean-, Agirre-k ez du bilatu ere. Hizkuntza, jendeek zerabilaten heinean utzia du, nahi bezain maisuki, bainan maila hartan. Lhandek adierazten duenez, hori gertatzen da euskarak ez duelako oraindik behar zukeen malgutasuna hein horretan erabilgarri bihurtzeko gisa.

- **“Etxahun-Barkoxe“-ren bertsortze lana** :

Etxahun-Barkoxe-ri buruz egiten duen azterketa luzea, lan mota zinez berria da orduko euskal letretan. Erran daiteke, literaturaren kritikagintzari bihurgune bat ematen diola, ordu arteko kritika moldeak (Urkijo, Etxepare, etb.) kontutan hartzen badira. Bainan, garai berean, Hegoaldeko eskualdean, Aitzol, Orixe eta Lizardi eta multxo bereko idazleen artean, gisa bereko urraspide historikoari buru egin zioten (gai hori, urrunago aipatuko dugu).

Etxahun-Barkoxe-ri buruz egiten duen artikuluan, bi kritika mota nahasten ditu Lhandek, alde batetik metodologia historikoa, bestaldetik hartze edo harrera enpatikoa eta subjektiboa.

Historikoa da Lhandek proposatzen duen azterketa, kronologikoa baita hastetik buru. Etxahun-Barkoxe-ren bizi guzia kondatuko baitu hiru partetan, eta parte nagusi horietan azpi-partiak eginez : 1. La vie du poète. 2. Le foyer malheureux. La vie errante. Pasatzean, poetaren sorkuntza nagusiak (*Ahaide delizius huntan, Bi berset dulurusik, Mündian malerusik, Barkoxeko eliza, Musde Thiraz*) aztertzen ditu, alde batetik, kondaketa historikoaren oinarritzeko eta, beste aldetik, froga gisa, susmatzen eta aintzinatzen dituen Etxahun-en motiboen argitzeko.

Beraz, testuen bigarren erabiltze mota horrekin, historiatic hara eramaten gaitu kritikariak ; subjektibotasunean sarrarazten gaitu, hain zuzen. Eta, bide horretan bere burua ere sartzen du : kronologiatik aparte, bada artikuluan beste ardatz bat, guziz egituragarria : Lhande-k bidai bat bezala kondatzen du bere ikerketa. Bidai bat iraganean, baita ere bidai bat espazioan :

« Pendant les vacances de l'année dernière (1922), j'ai parcouru à dos de mulet les vallées de Gaztelondo, de Jauregiberria et de Malta, m'arrêtant aux seuils des maisons pour interroger les paysans. »

« Le barde Etchahoun », *Gure Herria*, 1923.

Beraz, bilaketa zientifikoari bigarren bat, guziz pertsonalagoa lotzen dio. Eta, Etxahun-ek kurritu dituen leku guzietarik iragan ondoan, Barkoxeko hilerriraino badoa, eta han, hilobiaren aintzinean, poetari zuzenki mintzatuz, aztertzaileak aztertzen duenarekin komunikazioan sartzea lortu izan balu bezala egiten du :

« Mon brave Etchahoun, il y a quelque chance pour que, depuis la date de ta mort (...), tu n'aies pas reçu souvent à ta tombe la visite d'un prêtre... ».

« Le barde Etchahoun », *Gure Herria*, 1923.

Bertsolari ahantzi batetik (*Etchahoun n'était guère, en mon enfance, qu'un nom, un souvenir*) edo hobe erranez, kantu herrikoien egile gehien gisa, erdi ahantzi batetik abiatuz, poeta baten figura sortzen du, eta euskal literaturan falta zena gainera : Erromantikoez asmatu zuten « poeta madarikatu »-arena. Bi ideia horiek (kritikaria figura literarioen sortzailea neurri batean ; Etxahun-Barkoxe poeta madarikatua da) aurkitzen dira Lhanden idazlaneko sartzean berean :

«*C'est une de ces figures attachantes et pitoyables que je me flatte d'avoir découvert...* »

« Le barde Etchahoun », *Gure Herria*, 1923.

Mito literarioen beharra badela, edozein kulturetan badaki oso ongi Lhandek eta, Etxahun-Barkoxe-rekin ikusten du « mito-gai » edo « ihizi » ona duela. Ez ginuke maltzurkeria edo tranpa bezala hartu behar Lhandek (baita ere Aitzolek bere aldetik) obratu duena. Doi doia, bestetan aurkitzen zena eta gurean eskas zena sortu nahi zuen. Horrengatik, zer nahi alusio edo konparaketa erabiltzen du idazlanean zehar. Sartzean aurkitzen diren batzu altxatuko ditugu :

Le barde Etchahoun = Homero, Ossian, XIX-garren mendeko bardoak (Europako ekialdean, Prosper Mérimée- k aurkitzen dituenak, etab.)

Le sublime aveugle de l'Hellade = Homero

Le Villon ou le Verlaine de la littérature basque : Erromantikoez sortu zuten « poeta madarikatuaren » figura.

Beraz, Lhande-k ez du hutsetik asmatzen aurreratzen duen hipotesia : adierazten du ez dugula gure tradizioa ezagutzen, ez dakigula ikusten benetako baloreak non diren, ez dakigula ere bestetan egiten denarekin gurea konparatzen. Hots, literaturaren historia eraikuntza bat dela, beste eraikuntza kultural eta politiko guzien gisa.

- **Le Pays basque à vol d'oiseau** : Euskal literaturari buruzko ikuspegi orokorra

Ikuspegi orokorra ematea da, dudarik gabe, Lhande-n helburua *Le Pays basque à vol d'oiseau* liburuan. Hara nola aurkezten duen hitzaurrean :

« ... *quelque ouvrage court et gréable qui leur fasse connaître dans leurs grandes lignes la physionomie extérieure, les origines, les traditions littéraires et morales de ce peuple énigmatique dont le premier aspect les a séduits.* »

« Introduction », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Hirugarren kapitulua, izpiritu berean egina, ikuspegi orokorrarena eta « La littérature et la langue » deitzen da. Lau parte nagusitan banatua da. Lehen partean, nahiz ez duen izendatzen, Julien Vinson-i ihardesten dio. Harek, behin baino gehiagotan (ikus ondoko kapitulua), euskal literaturarik ez zela idatzi zuen. Lhande-k hiru pundutan egituratzen du bere erantzuna. Lehenik onartzen du ez daitekeela aurki euskal letretan obra nagusien zerrenda luze haietarik bat, Europako hizkuntza handietan bezala. Bainan, kontzezioa egin ondoan, bi mailetan aurreratzen du bere ikusmoldea. Lehen argudioa guziz modernoa da ; literaturaren instituzio eza (batez ere itzulpenetarako indar falta) azpimarratzen du. Harek dionez, gabezia hortan da oinarrizten Euskal Herritik kanpo nabaritzen den ezagutza eskasa. Bigarrenik, xeheki zenbatzen du zer den atzematen euskal letren ondasunen artean, poesia, antzerkia eta prosa denak batean emanik :

- *“chansons de geste et mystères*
- *légendes poétiques*
- *oeuvres de prose*
- *poèmes et romans*
- *théâtre populaire et original”*

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d’oiseau*, 1925.

Hots, mota askotako obrak badira haren iduriko eta dauka, frogaturik utzi duela euskal literatura bat badela. Halarik ere, konparaketa ausartak egiten ditu artetan, adibidez Noruegako Ibsen antzerki egile famatuaren parean ezartzen dituelarik J.B. Elizanburu edo Gratien Adéma « Zalduby ».

Bigarren partean, euskal literaturak jasaten dituen ezagutza eta zabaltze falta aztertzen ditu. Euskaldunek berek ez dutela behar bezalako formakuntza jaso bai ama hizkuntza maila, baita ere euskal kulturari buruz, erdaraz eskolatuak izan baitira eta, bestalde, letretan mail kaxkarra baizik ez dutelako lortu. Ondorioz, Agusti Xaho kendurik, euskal literaturaren aztertzaile gehienak kanpotik etorri direla erakusten du Lhandek. Eta hizkuntza ez baitzuten aski ulertzen (Francisque Michel eta Julien Vinson izendatzen ditu adibide gisa), ez dira gai izan gure ondasunen ezagutarazteko kanpoko erresumetan, erdararen bitartez. Bainan, hortik aparte, beste bi argibide ematen ditu kanpokoan estimu eskasaren azaltzeko :

« J’ai dit que le peu d’estime où l’on a tenu jusqu’ici la littérature basque vient de son caractère esthétique très spécial, très différent de ce que nous sommes habitués à admirer chez les littératures des autres peuples. (...) Ce qui fait la vraie beauté de la poésie euskarienne, ce n’est point cela. C’est tout d’abord l’exquise simplicité des sentiments, leur fluidité, limpide et fraîche, leur noble sobriété

d'expression. Pour bien comprendre ces choses, il faut faire table rase de toute notre rhétorique altine. Il faut descendre dans l'âme populaire à la faveur de ces mots si simples et si spontanés, et chercher à comprendre tout ce qu'ils renferment de naïveté, d'émotion, de douceur infinie »

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Horretan, Erromantikoengandik jaso duen eragina -frantses literaturaren historio egileen bitartez- garbi ageri da : berezitasuna, herriko jendeen baitan kausi daitekeen oinarrizko poesia iturria, etab. Eta, bestalde XIX. mendeko filologo gehienen ildotik baita ere, Hipolyte Taine, frantses literaturaren historio egile eta filosofo famatuaren bidetik doala erakusten du :

“Il faut avoir sans cesse devant les yeux le cadre incomparable où ces mots ont été pris et où, seulement, ils ont tout leur sens.”

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Eta sorkuntza soil eta xume horren adibide batzu eman ondoan, XIX. mendeko beste topiko bat aurreratzen du, hizkuntzaren « genio »-arena hain zuzen. Euskara guziz berezia den ber, ezin da itzulpen baten bidez muineraino joan, poesia eta kantu baten funtsaren adierazteko. Euskal sorkuntzaren berezitasuna agerian utzi beharrez, bertsolaritzaren aipamenarekin bukatzen du bigarren partea :

« Ce peuple qui « n'a pas de littérature » est en effet le peuple du monde qui possède le plus grand nombre de poètes. Il n'est peut-être pas un seul village qui ne compte un ou plusieurs improvisateurs : paysan, berger, pêcheur, bûcheron, contrebandier. »

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925.

Hor, ageri denez, nahitara atxikitzen du « poeta » eta « bertsolaria »ren arteko parekotasuna, bat bateko sorkuntzarena eta poesia idatziarena, preseski, Julien Vinson-ek – hortan mendebaleko kritikagintza modernoari jarraikiz- onartzen ez zuena.

Hirugarren partean, mendez mende aipatzen ditu euskal letretan agertu diren obrak eta idazleak. Menturaz, ohar interesgarrienak XX-garren mendeari buruz egiten ditu, batez ere Euskal ikerketak aipatzen dituelarik sorkuntzarekin batean. Euskal ikerketen garapena eta literaturaren indartzea elkarri lotzean garbiki erakusten du beste garai batean sartua dela euskal literatura eta ez da ahantzi behar horren berri bazuela orduan, goi maileko euskalzaleen mugimendu horretan parte hartzen baitzuen buru-belarri.

Laugarren eta azken partean, gogoeta luze bat idazten du Lhandek euskal literaturaren geroari buruz. Euskal literaturak, maila herrikoietik kultora pasatzean ezagutzen duen egoera

aldaketa onartzen du, bainan, doinu nostalgiko batekin, gustukoa zuena ezinbestean desagertzera doala ikusiz :

« *La littérature qui renaît accuse et entraîne la littérature qui meurt.
Est-ce un malheur ? Est-ce une aubaine ?* »

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d'oiseau*, 1925

4. Pierre Lhande eta garaiko literaturaren historia :

- Lhande, bihurgune batean : Kronikaren izenburua eztabaida-gai.

1919tik hara, RIEV-en bere gain hartzen duen saila, “Chronique de littérature basque” deitzen du eta izenburuan berean bada aukera bat guziz interesgarria. Lehenik, “euskal literatura” bat badela baieztatzen du eta oroitu behar da arazoa ez zela oraindik trenkatua adituen artean, iraganari begira batez ere. Behin baino gehiagotan eztabaidatua izan da gai hori XIX. mende ondarrean eta XX. mende hastapenean.

Kanpotik heldu ziren jakintsu eta adituek hizkuntzari ematen zioten lehentasuna gehienetan. Eta ipuin eta kantu biltzen ari zirenek, ez zioten beren uztari literaturaren heina ematen⁴. 1882-an, Julien Vinson hizkuntzalariak, *Les Basques et le Pays basque* liburuan idazten zuen zehazki « *Plusieurs écrivains de mérite, français ou espagnols étaient Basques. Mais il n'existe pas de littérature nationale proprement dite* ». 1925.ean oraindik, *Gure Herria* agerkarian, « *Y a-t-il une littérature basque ?* » galdetzen zuen bere artikulua hastapenean eta, bukatzean, 1882ko liburuan bezala eza ematen zuen, erranez « *Mais jusqu'à présent, nous devons constater qu'il n'y a pas véritablement de littérature basque, représentative du caractère basque.* »

Julio de Urquijo-k, 1907an, J. Etxeberri Sarakoaren idazlanak aurkezterakoan ez du « euskal literatura » aipatzen. “Literatura” hitza bera ez du erabiltzen. “Obras de J. d’Etxeberri”, “De Re bibliographica”, eta horrelako erran moldeak baliatzen ditu. Sarako medikuaren hizkuntza xeheki aurkezten du bainan ez du “Euskal-Herriko gazteriari” bezalako testu baten alde literarioa batere azpimarratzen.

J. Etxepare-k hainbat aldiz liburu berriak aipatu ditu aste oroz *Eskualduna* astekarian eskaintzen zuen kronikan. Axular, J.P. Duvoisin, J. Hiriart-Urruty idazleak goraiatu ditu, Oxobi-ren *Alegiak* (1926) edo J. Barbier-en *Piarres* izeneko eleberriaren bigarren liburukia (1929) aurkezten ditu guziz xeheki bainan, harek ere ez du « literatura » erran moldea erabiltzen. Haren orde, « euskal liburuak » ezartzen du.

⁴ J.F. Cerquand : *Légendes et Récits populaires du Pays basque*, Pau, 1876-1877.
W. Webster : *Basque legends*, Londres, 1877.

Beraz, Lhande-k bertako gehienek erabili gabe uzten duten hitza eta harekin batean datorren kontzeptua, erabiltzen ditu, batere zalantzarik gabe. Eta kanpoko aditu askok erakustera eman duten ikus moldearen kontra doa, dudarik gabe, « euskal literatura »-ren kronika idekitzen duelarik, 1919-an RIEV aldizkarian, Euskal ikasketen agerkari famatuan. Gainera, zenbait urte geroago, *Le Pays basque à vol d'oiseau* liburuan, Vinson-en ikusmoldeak (Euskarazko literaturarik ez da ; euskal literaturarik -literatura nazionalik- ez da) ezeztatzen ditu, bere ideien aldeko adibideak emanez.

Bigarren ohar bat egin behar da berehala. Euskal literatura badela baieztaten du bainan, erdarazko liburuak sarrarazten ditu sail hortan, euskarazkoekin batean. Hots, orduko aditu gehienen arabera, Lhande-k uste du euskal gaien eremu bat badela eta hemen gandi erabiltzen diren hiru hizkuntzetan sor daitekeela euskal eremu hortako literatura.

- Literaturaren historia XIX-garren mendean.

Pierre Lhande-n obra kritikoak garai hartako Jesuiten formakuntzan ditu oinarriak eta iturriak, baita ere frantses literaturaren historialarien baitan. XIX-garren mendean, Frantses historialarien formakuntza hobetzen da eta orduko fama handiko izen batzu ezagun dira oraindik :

J. Michelet (1798-1874), E. Quinet (1803-1875), E. Renan (1823-1892), N. Fustel de Coulanges (1830-1889), E. Lavissee (1842-1922), besteak beste.

Denbora berean, frantses “literaturaren historia » molde segitu batez lantzen hasten da. Orduko izen handien artean, Sainte Beuve (1804-1869), Hipolyte Taine (1828-1893) eta Gustave Lanson (1857-1934) izan dira orain arte gelditu diren izendeiturak. Beraz, erran daiteke, “zientifiko” kalifikatiboa ez bada erabiltzen ere, kritika akademiko bat egiten dela, unibertsitarioen artean eta, frantses eskola edo tradizio horrek atxiki zuen lehentasuna, 1960ko hamarkadan sortu zen “kritika berria” (Barthes, Starobinski, etb.) nagusitu arte. Tradizio hortan sartzen da P. Lhande, formakuntzaren aldetik baita ere testuen aztertzeke metodologiaren ikuspegitik.

- Lhande, Hippolyte Taine frantses historiolariaren bidetik.

P. Lhande-n kritika motan suma daitekeen eragin handiena, dudarik gabe, Hipolyte Taine-ena da.

Lhandek, Hipolyte Taine-n erran moldeak erabiltzen ditu errateko lehenik, euskal literatura badela eta, bigarrenik, beste edozein bezalakoa dela, beraz, besteak bezainbat balio duela :

“La littérature basque existe ; et non pas seulement la littérature de folklore (proverbes, devinettes, chansons légères) mais la littérature proprement dite, l’expression hautement littéraire du génie lyrique ou esthétique d’un peuple, d’une race et d’une langue.”

« La littérature et la langue » *Le Pays basque à vol d’oiseau*, 1925.

Euskal literatura, Jendalde, arraza⁵ eta hizkuntza baten adierazpen gorenena da. Eta hori da, preseski, XIX. mendean zehar, Europa guzian zabaldu zen literatur nazionalaren definizioa eta Europako nazioen eraikuntzan ezaugarri nagusi gisa sartzen zena.

Hipolyte Taine-n ikusmoldea guziz murrizturik gelditzen da betiko aipamen bera ematen bada, testuingurua kontutan eduki gabe :

“Trois sources différentes contribuent à produire cet état moral élémentaire, la race, le milieu, le moment”

« Introduction », *Histoire de la littérature anglaise*, 1866.

Taine, Darwin-en garaikidea da. Haren ustez, gizonak aitzinean ukan dituen guziak biltzen eta bateratzen ditu bere baitan.

“On connaissait l’homme, on ne connaissait pas les hommes ; on n’avait pas pénétré dans l’âme ; on n’avait pas vu la complexité merveilleuse des âmes ; on ne savait pas que la structure morale d’un peuple et d’un âge est aussi particulière et aussi distincte que la structure physique d’une famille de plantes ou d’un ordre d’animaux. Aujourd’hui, l’histoire comme la zoologie a trouvé son anatomie, et quelle que soit la branche historique à laquelle on s’attache, philologie, linguistique ou mythologie, c’est par cette voie qu’on travaille à lui faire produire de nouveaux fruits. »

« Introduction », *Histoire de la littérature anglaise*, 1866.

Harek, ondokotasun kulturala sumatzen du Darwin-ek ondokotasun genetiboa ikusten zuen bezala. Nortasun biologikoak (“arraza”) eta zibilizazio baten ezaugarriek (ingurumen fisikoa eta kulturala) bat egiten dute une berezi batean (“mementoa“). Eta, metodologia mailan, fruituetarik (sorkuntzatik eta obretarik) erroetara joan daiteke, Taine-k dioenez. Ohar orokoretarik landa, hara zein den haren lanerako egitaraua :

“A ce moment et dans ces pays, les conditions se sont trouvées remplies pour un art, et non pour les autres, et une branche seule a bourgeonné dans la stérilité générale. Ce sont les règles de la végétation humaine que l’histoire à présent doit chercher ; c’est cette psychologie spéciale de chaque formation qu’il faut faire ; c’est le tableau complet des ces conditions propres qu’il faut travailler à composer. »

⁵ Taine-n hitzetan, « arraza » da izpiritu nazional bat, nazio baten oinarria, muina.

« Introduction », *Histoire de la littérature anglaise*, 1866.

Lhande ere, ingurumen fisikotik eta jendaldearen berezitasunetarik abiatzen da bere ikerketan barna, “Le décor“ et “Les origines », lehen bi kapituluetan :

« *Ce pays, tour à tour riant et sauvage, sert de gîte (depuis les temps les plus reculés qu’atteignent les données un peu sûres de l’histoire de Gaule) à une race, ou peut-être à un reste de race parlant une langue mystérieuse, sans analogie bien établie avec les langues actuellement connues sur notre globe* ».

« Les origines », *Le Pays basque à vol d’oiseau*, 1925

Eta, euskal literaturaren funtsezko erran nahia aipatzen duelarik, Taine-k berak idatz zezakeen ondoko ohar orokorra botatzen du bere deskribapenaren bukatzeko :

« *La littérature d’un peuple, expression de son activité intellectuelle et morale, reflète toujours ce qui, dans la vie de ce peuple, est le point central des préoccupations, des travaux, des tendresses et des passions, ce qui dans son organisation, est le rouage central et la clé* ».

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d’oiseau*, 1925

Frantses literaturaren historia egile nagusien gisa, ikuspegi orokor bat eman nahi du euskal literaturari buruz. Bera baino lehen, sail horretan ari izan diren hiru jende izendatzen ditu : Augustin Chaho, Francisque Michel eta Julien Vinson. Bainan, haren gostuko, hiruek zerbaitetan huts egin dute (ikus : « La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d’oiseau*, 1925).

Gisa bereko lana bilatzen bada Euskal Herrian, bi urte gehiago igurikatu behar, Orixeren *Euskal literatura’ren atze edo edesti laburra* (*Euskal esnalea*, 1927), argitaratu arte preseski. Idazlan horrekin, Lhande aitzindari izan zen dudarik gabe.

5. Literaturaren historia : garrantzia handiko kultura saila. 2 pp

- Literaturaren historia eta eraikuntza nazionala Europan.

Gauza jakina Europako nazioen eraikuntzan parte handia hartu dutela XIX. mendean literatur sortzaileek, hala nola Alphonse de Lamartine eta Victor Hugo Frantziaren. Politikan sartuz, lege biltzarrean jarleku bat hartuz, eta, behar orduan, oposizioan jarriz, hala nola Hugo Napoléon III. arekin, benetako egile eta langileak izan dira. Sortzaile gisa ere asko ekarri dute, Hugo-ren adibidearekin segituz, *La Légende des Siècles* (1856) neurtitzetan eman duen legendarioan, Frantziaren historia (Frantzia ez zelarik oraindik) eman du berreraiki duen egituraketa batean, Karlo Handitik hasiz XIX-garren mendea arte.

Literaturaren historia egileek ere eraikuntza nazionalen parte harte dute Europako erresuma anitzetan, sortzaile eta obra nagusien bitartez, nazioaren funts edo esentziaren garapena erakusten baitzuten. Nortasun kolektiboa bere hein gorenean zegoen neurritz kanpoko gizon emazte horietan (sortzaileak) eta gizarte baten muina eta berezitasuna (beste nazioetarik bereizgarri ager zitezkeen ezaugarriak) biltzen zituzten beren sorkuntza lanetan⁶. Eskolaren bitartez biziarazten zen Obra nagusien zerrenda (Kanona) eta Idazle handien multzoa (Panteon-a) eredu gisa erabiliak ziren, idazterakoan baita ere bizitzerakoan.

- **Euskal literaturaren eraikuntza lana** :

Euskal Herriaren inguruan Nazioak badira eta bakoitzak eraiki du bere literatura nazionala. Badirudi xede hori duela gogoan Euskal Herriarentzat, Lhande-k erraten duelarik :

“La littérature basque existe ; et non pas seulement la littérature de folklore (proverbes, devinettes, chansons légères) mais la littérature proprement dite, l’expression hautement littéraire du génie lyrique ou esthétique d’un peuple, d’une race, d’une langue.”

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d’oiseau*, 1925.

Ez da ahantzi behar, Lhande abertzaleengandik oso hurbil zegoela eta horrelako aukera ageri da ondoko lerroetan :

« « Langue basque ! Langue basque ! Parais donc au dehors !⁷ », nous appartenons nous aussi au libre domaine qu’ont le droit de fouler les grands peuples. La jeune et ardente école nationaliste a soif de jeter notre nom aux échos du monde. »

« La littérature et la langue », *Le Pays basque à vol d’oiseau*, 1925.

Txomin Agirre-ren *Kresala* eta *Garoa* edo Etxahun-Barkoxe aztertzen dituelarik, euskal kanon-a eta pantheon-a lantzen ditu molde zientifikoan (orduko moldean, noski) baina, ez da dudarik, helburu edo xede didaktikoak badituela gogoan. Euskaldunek ez dituzte beren ontasunak ezagutzen ; beraz, erakusten dizkie. Kanpokoek ez dute uste Euskaldunek literatura bat badutenik ; beraz, ezagutarazten die, jakintsun baten moduan, hots modu sinesgarri batean.

- **Pierre Lhande-n garaikideak** :

Pierre Lhande-z bestalde, bakar batzuk baziren kritikagintzan ari zirenak garai hartan. Aitzol, Etxepare, Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Urquijo, eta beste batzuk⁸ ari ziren

⁶ Paul Bénichou, *Le sacre de l’écrivain*, Ed. J. Corti, 1973 ; *Le temps des prophètes*, Ed. Gallimard, 1977.

⁷ Aipamen hortan, B. Etxepare-ren lelo famatua itzultzen du : “Eskuara ! Eskuara ! Jalgi hadi kanpora !”

liburu berrien eta berrargitalpenen aipatzen. Frankotan, azterketak luzeak eta sakonak izaten ziren eta, ohar interesgarri asko aurki daiteke hizkuntzari buruz adibidez, hizkuntza literarioaren eztabaida baitzen orduan betebetea. Hor daude lekuko Jean Etxepare-ren asteroko kronikan irakurtzen ahal ziren aipamen mamitsuak⁹, Lizardi-renak¹⁰ edo Lauaxeta-renak¹¹ bainan, gehienek ez zuten literaturaren historiari buruz ikuspegi orokorrik ematen. Biga badira Hegoaldean, gisa bereko lana egin dutenak : Aitzol eta Orixe. Nahiz ez duen euskal literaturaren historiarik egin, Aitzolek ikuspegi sakonak, guziz landuak eta erreferentziaz josiak eman zituen olertia eta ahozko literaturari buruz batez ere, bere lankide eta adiskideen liburuentzat idatzi zituen hitzaurretan (Lauaxeta, Lizardi, Otaño, Zaitegi, etb.)¹². Orixe-k aldiz, *Euskal Esnalean* eman zituen idazlanetan, benetako Euskal literaturaren historia egiteko asmoa ukan eta obratu zuen, P. Iztueta-k, testu horien bigarren edizioaren aitzin-solasean¹³ dioen bezala :

“*Eta hor tartean, erdi-galduta bezala, Orixeren Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra (1927) daukagu, bere laburrean, euskal literatura bere osotasunean hartzen duena, ahozkoa bezala idatzizkoa, nola Iparraldekoa hala Hegoaldekoa.*”

P. Iztueta, “Irakurtzeko gomendioa”, in Orixe, *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002.

Lhande-k xede berarekin argitaratu zuen bere kapitulu luzea *Le Pays basque à vol d'oiseau* liburuan, bi urte lehenago. Nahiz biek Jesuiten formakuntza klasikoa ukan zuten, ez dituzte metodologia eta ikuspuntu berdinak erabiltzen beren lanetan. Lhande-k ikusmolde konparatiboa erabiltzen du : euskal literaturaren berezitasuna erakutsi nahi du eta beste Europako emaitzen parean ematen du hemengoa. Erdaraz ari da, Euskaldunentzat, bistan dena ; bainan, beharbada kanpokoentzat gehiago oraino, euskal literaturari buruz duten ikuspegi ezkorra aldatu nahiz. Orixe-k aldiz, euskaraz egiten du bere aurkezpena, Euskaldunentzat. Barnetik ari da, barneko ikuspegia ematen du eta horretan mugatzen du bere azterketa. Xede berdina izanik ere, emaitza desberdina ematen dute, bainan, egungo begi batentzat, ongi osatzen dute elkar.

- **Pierre Lhande-en ekarpena** :

⁸ Ikus : *Gerraurreko literatur kritika*, (I. Aranbarri eta K. Izagirre-ren edizioan), Ed. Labayru ikastegia, 1996.
Kritika literarioaren lehen saioak, (P. Iztueta-ren edizioan), Ed. Utriusque Vasconiae, 2002.

⁹ Ikus : *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, 1. Euskal gaiak, (P. Charriton-en edizioan), Ed. Elkar, 1984.

¹⁰ Xabier Lizardi, *Kazetari-lanak*, (L. Otaegi-ren edizioan), Ed. Erein, 1987.

¹¹ Estepan Urkiaga « Lauaxeta », *Gure aberriaren elea*, (X. Altzibar-en edizioan), Ed. Labayru ikastegia, 2005.

¹² Jose Ariztimuño « Aitzol », in *Literatura inguruan* (edizioa, askoren artean), Ed. Erein, 1986.

¹³ Nicolas Ormaetxea « Orixe », *Euskal literaturaren historia laburra*, (P. Iztueta-ren edizioan), Ed. Utriusque Vasconiae, 2002.

Zer ekarri du euskal literaturaren kritikagintzan Pierre Lhande-k XX-garren mende hastapenean ? Galdera horrekin bukatzen ahal dugu Lhande-ren kritikagintzaren errepasso hori.

Dudarik gabe, frantses kulturaren eredia erakarri du euskal alorrera eta, hartzen dituen erreferentziak (Frantses historia egileena, H. Taine-na besteak beste) ez ziren oraindik sartuak ez eta ere biziki ezagunak Hegoaldean. Erreferentziekin batean, funtsezko problematika batzu ekarri ditu mahaira. Ordu arte, ikuspegi filologikoa nagusi zen euskal kritikagintzan, hala nola Urkijo-ren kasuan. Literaturari buruzko galderak hizkuntzaren menpe egoten ziren komuzki. Lhande-k aldiz, gai berriak aipatzen ditu (Ahozko literatura eta idatzizkoaren arteko harremanak ; itzulpengintza eta literatura nazional baten ezagutza ofiziala ; elizako literaturaren tokia ; irakurlegoaren arazoa ; mito literarioen beharra, etb.). Galde oso teknikoak egiten ditu ere ; adibidez, eleberrigintzari buruz (Agirre, Azkue) edo hizkuntza literarioaren osatzeko moldeari buruz (Agirre, Azkue). Lhandek egiten duen hirugarren ekarpena, metodologia mailan aurki daiteke. Erran dezagun erdi zientifikoa, erdi subjektiboa dela, hots historikoa eta enpatikoa.